

MARIA MARKOTEGI SARIAK

2017



LH 1 ETA 2

DOMINGO GORRINGO PIRATA

Mundu guztiak Domingo Gorringo deitzen zion. Pirata zen: oihal beltz batez estalia zuen begia, eta egurrezko hanka bat zeukan. Baina Domingo Gorringok ez zuen inor beldurtzen. Neska mutilek esaten zioten:

—Domingo Gorringo, non duzu ezpata?

—Domingo Gorringo, non duzu altxorra?

Hala ere Domingo Gorringo ez zen haserretzen.

Domingo Gorringok bazeukan, bai, altxor bat urrutiko uharte batean gordeta. Domingo Gorringok ez zeukan itsasontzirik ordea, eta ez zuen inork pirata urrutiko uhartera eraman nahi.

Behinola kapitain batek esan zion:

—Domingo Gorringo, neuk eramango zaitut urrutiko uhartera.

Kapitainak eraman zuen Domingo Gorringo urrutiko uhartera, eta han aurkitu zuen gaztetan gordetako altxorra.

Altxorreko urreak uharteraino eraman zuen kapitainari eman zizkion. Altxorreko perlez, itsasontzi berria erosi zuen. Altxorreko diruez gozokiak eta gailetak erosi zituen herriko neska mutilentzat.

Anjel Lertxundi



Parte hartzaileak: Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak: Lehiaketak sail bakarra izanen du: **ilustrazioa**.

Kategoriak:

Lehiaketak kategoria bakarra izanen du: LHko 1. eta 2. mailetako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea:

Lanak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 17an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Mank
s a k a n a

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32 · 31830 LAKUNTZA

948 464 840

euskara1@sakana-mank.eus

Lanak aurkezteko modua:

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen goitizena, saila eta kategoria. Ezin izanen dira lanak multzoka aurkeztu, hau da, lan bakoitzak bere gutun-azala izanen du.

Baldintzak:

- Hurrek **Anjel Lertxundiren *Domingo Gorringo pirata*** ipuina ilustratu beharko dute.
- Ilustrazioak A4 formatudun orrietan egin beharko dira. Margo mota eta teknika guztiak onartuko dira.
- Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bat aurkez dezake.

Sariak:

Aurkezten diren lan guztien egileek orogarria jasoko dute. Guztira bi sari izanen dira.

1. saria: Pintura zorro osatu bat
2. saria: Pintura zorro osatu bat

Sari banaketa: Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Argitalpena:

Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia:

Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturaren nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egingen ditu. Aurkeztutako lanek gutxienezko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak *ex aequo* moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.